



Axular'en itzala ⁽¹⁾

Bi aldiz ikasle izana nuzue toki untan. Badut beraz zenbait oroipen ikastetxe ospatsu unen xokoetan.

Hemen erri ainitzetako izkuntzak, errialde guztietako jaikiundak beren agerlekua izan dute. Ez da beraz arritzekoa eskualdunek ere, egun bederen, gure gaiezaz hemen mintzatzea.

Axular idazlariaz itz bi eta bere inguru bertze bi ; ara nere gaia.

Lau mende ba-dire Axular sortu zela. Guztiok dakizute ; Urdazuri'n jaio, Iruna'n ikasle, Tarbe'n apeztu eta Sara'n apezburu. Herri alai eta xoragarri untan « GERO » izena duen liburu aipatua egin zuen, lan gaitza erabili zuen eta bertan hil zen.

Bere liburua eskuara ederrean antolatu zuen. Or ba-dugu gure mintzaera ikasteko irakasaldi aski sakona. Baina ba-ditugu bertze ikasgai geiago ere. An-emen Axular-ek berri ainitz, Eskualerri'ko bizikerari buruz xuxen agertzen dizkigu.

Mende artako bizi-lagunak hemen artzainak, an nekaraziak, itxasaldean arrantzaleak, bertze batzuek ola-gizonak, zenbeit aitoren-seme eta errumes. « *Mairu herrico mairu beltçac* » ere aipa oi ditu Axular'ek (GERO, 93-n orrialdean).

Bizikerazaz maiz mintzo da, bereziki jan-edanezaz, jantzi, etxe, tresna, nekazaritza, arrantza eta bertze gauzezaz.

* * *

Ara zer dion artzen ditugun azkurriezaz.

« *Janhariaren iaquia barura da eta gosea* » (GERO, 492).
Ez ditu onartzen « *jan-edanean ieri dabilçamac* » (G., 409).

(1) Barandiaran'go Joxemiel'ek, 1956-ko buruilaren 28-an, Paris'go Sorbona'n egin zuen itzaldiaren laburgoa.

Ez du ontzat artzen, bainan aitortzen du atsegin dela « *bazcari onagatic, afari onaren ez uztea* » (G. 480).

Urdeazaz ba-ditu itz oek ; « *urdeac... nola ezpaitu deusere on den gauçaric, bere urdaia baicen, ez lumaric, ez larruric* » (G. 432-433). Orai ez luke nehork Sara'n urdeazaz hori erran. Orai erraten da ; « *urdeak deusik ez du galtzekorik ; urdaiak, ezurak eta ertziak* ».

« *Haraguia berri deino, gacitcen da* » (G. 89). Egun Sara'n erraten da ; « *xingarra, berria eztalarik, ezta gazitzen* ».

Zenbait gaitzezaz ara zer dion ; « *çurari pipia, oihelari cerrena, urdaiari cedena eta haraguiari harra* » (G. 340) ; « *Ançutcen da haraguia* » (G. 386), dio ordea zainak apaltzen direla errateko.

« *Bitina, ahuntz-umea, gazte deino, on da iateco, samur da, uxter da sasoal da ; ordea galtcen du adinac* » (G. 97).

Inpernuan bat izanen da penatua « *cenbait ianhari urdin-
duz, eta edari çurminduz* » (G. 588-589).

Eztiazaz erten digu ; « *Erleac, hain gauça ttipiac, eta flacoac, bethatcen du mundua, eztiz eztitceço, eta ezçoz arguitçeco* » (G. 35). « *Eztia darion berasca* » ere aipa du (G. 355). Orai ordea Sara'n ez da erraten beraska, « *orrazia* » edo « *erle-orrazia* » baino.

Edariazaz dio ; « *Eman baitcerauen, harri-muguer batetaric atheraric, ithur-ur fresco bat* » (G. 511). Sara'n ez da « *itur-ur freska* » erraten, « *iturrotx* » baino. Ezta « *harri-muger* » ere ; « *suarri* » bai.

Edaria ordea, geiegian, kaltegarri dala adierazten digu : « *Bertcerentçat ere itsusi da sobera edatea, baina emaztentçat are itsusiago* » (G. 406).

Gabezian dagonazaz erten digu : « *eztaqui othuruntça on baten berriric* » (G. 224). « *Othuruntza* » da eguneko janaldirik aundienen izena ; gosari, bazkari eta afari othuruntzak dire, oraiko mintzearan, Sara'koan beintzat. Bertze janaldiak (krakada eta amaiketakoa) ez dite othuruntzak.

* * *

Ara rer dion jantzi edo sonekoezaz :

Beartsua, Axular'ek digunez, « *biluz da ; orthuz da ; eztu aldatceko athorraric, eta ez etçateco oheric* » (G. 224).

Sara'n « *orthuz* » erraten da, baita « *ortotsik* » ere, zango-takorik gabe bat dabilela adierazteko. Orai 70 urte ortotsik ibiltzea oitura zen, etxean naiz kanpoan, lan txiki guztietan, batez

ere lurra bustirik zegoalarik. « *Athorra* » azpiko jantzia da. Leku batzuetan ordea haurren azpi-jantzia izen orrezaz adierazten da. « *Ohea* » lau onen ganean da; lurrean zabalik (artzain txaboletan) dagona « *etzauntza* » da. Eyangelioko aberatsazaz dio : « *bezticen cela ongui eta othuruntçatcen hobequi* » (G. 233)

« *Oihalaren parte bat, neurtcen eta ordenatcen dugu capataco, bertçe parte bat iacataco, eta gaineracoa behar diren bertçe soinecoen eguiteco* » (G. 66). Jaka, gainetik erabiltzen den jantzia da, haurrena bereziki. Orai ainitzek « *tabliera* » deitzen diote.

Bertze jazkera batzuk aipa ditu erranez ; « *Neskato bat, copetaren edertceco, cheloaç goiti thiraturic, penatçen çela ; eta guerriaren ere lerdentceco, bortitzqui hersten cela* » (G. 516).

« *Arropa berriac bazcotçat eraguin nahi dituenac, aitçinetic behar du prestatcen hasi* » (G. 200). Orai ere Sara'n Bazko'tan soineko berriak asera emateko oitura ba-da. Baita Erramu egunean ere, eta erran oi da jantzi berriak debruari begi bat ateratzen diola.

« *Erregue vezti bedi oihalic hoberenaz, aitoren semea erdi-coaz, eta necaçalea arronteraz* » (G. 421). Oihala xuria izaten da, lehenago eunaz egindako jantziak bai ziren. Sara'n ez da erraten orai « *arronteraz* » ; « *arruntenez* » bai.

« *Eztu deus usnarazten usaian onez betheric ibiltceac, eta are gutiago berari dagocan baino soineco arropa ederragoac erabiltceac* » G. 418).

« *Ezta musquetaz, balsamoz, eta halaco bertçe usain onez usainztaturic ibili behar* » (G. 416). « *Balsamo, ambar, musqueta, eta halako bertçe usain onac ienden enganatceco* ». (G. 417). Orai ezta « *usainztaturik* » erraten, baina bai « *usaindurik* ». « *Çapata bat duçunean, neurri, iustu, doi; ecin paira deçaqueçu barrenean, den legarric ttipiena* » (G. 425). Egun bertze molde untan erraten da : « *Zapata bat duzenean neurri justuan, doi-doia; ezin paira dezakezu barnian den legarric ttikiena-re* ». « *Çapatac iauntci berrian, hersten du, min eguiten du, baina appur bat erabiltz gero, moldatcen da, oinaren neurrira eta orccoiera ethortcen da* » (G. 490).

* * *

Etxe eta bizitzaz baditu erran batzuek ;

« *Badu gure Guero hunec hemen ere bere ètchalècua, èta ostatua* » (G. 464).

« *Animaliec... bere etcheac eta etçauntçac* » nun dituzten adierazten digu (G. 24). Etzauntza abereak eta ihiziak etzaten diren leku eta azpi biguna da. Baita artzainak eta ikazkinek beren etxolan, iratzez edo inarrez egiten duten oatzea éré. Abéréenari toki batzuetan « *azpi* » eta « *ei* » deitu oi diote.

« *Nagua... bere beccatuen chisteran eta etçaurtçan baracten da* » (G. 46). « *Xistera* » oolez egindako kaiola bat da ; zerriak gurdian eramateko egina izaten da. Baditu bertze bi izen ere : « *zerriuntzi* » eta « *zerrikortxel* ». Urritz edo bertze zuaitzadarrez egindako esi bat (lau ertzekoa bera) izaten da ere « *xistèra* » ; arri batzuek gainean dituela, idiak erabiltzen dute landetan lurra berdintzen eta xeatzten. Sara'n gutxi dire orai xistera oek ; Zugarramurdi'n ikusten dire ainitz, bainan an « *arralda* » dute izena.

Etxean ikusten ditu Arular'ek ango « *habeac, sostenguac* » (G. 365). Orai ordea ez da habea erraten da Sara'n.

Baita ikusten ere « *ithaiçurac eta kheac* » (G. 427).

Etxeak badu « *athea bere erroetan eta uhaletan ongui iarria* » (G. 45). « *Erroa* » burdinezko iltze bat da bikundan ; kunda bat atealboan sartzen da ; bertzea uhalean edo atea iltzatua daukan burdin-xabalaren begian. Orai Sara'n ez da uhala erraten, « *partadura* » baino.

Aipa ditu atekak eta pausuak erranez : « *Athaca hertsian eta pausu gaitzean iragan behar baituçu* ». Sara'n ez da « *athaka* » erraten, « *atheka* » bai. Barrutietan edo lur esiz ingurutatuetan diren sarlekuei deitu oi zaie athekak ziriz eginak direlarik. « *Pausu* » beiriz arizko sarlekuari deitzen zaio ; baita ibaian alde batetik bertzera iragateko jartzen dire armallai ere.

« *Cucinaco eta succaldeço eltçe-plateren artean* » dabilena aipa du (G. 87). Egun « *kuzina* » janariak moldatzeko egiten diren lanai erraten zaie ; « *kuzina egin* » eta « *jatekoa egin* » berdin dire. « *Eltze* » lurrezko ontziari, sutan jatekoa egosten erabiltzen denari, deitzen zaio. Urraidaz edo burdinez egina bada, tupina du izena. Sara'n ez da « *platera* » erraten, « *azieta* » baino.

Illatiak ere aipa ditu : « *Egur heceac eguiten du gar, eta eguiten du nigar : sua datcheca, eta ura dario* » (G. 501).

Baita sua ere : « *Suco inharra, suco chinda, bera ere bere buruz fite iraunguitcen da* » (G. 369). « *Chinda* » eta « *iraunguitcen* » ez dire ezagunak orai Sara aldean.

Sukaldeko tresna da zuzia ere. Axular'ek aipa du erranez : « *Çuçia iratchequiric dagoenean, bici da, eta orduan hiltcen da, ceren orduan ahitcen da* » (G. 63). « *Zuzia* » ez da egun erraten Sara'n. « *Iratxeiki* » berriz, oraiko mintzaeran, burdin bat bertzeari eranstea da. « *Ahitu* » ere ez da ezaguna ; bere tokian « *higatu* » erraten da edo « *finitu* ».

Labea ere aipatzen du, bainan infernukoa : « *Gaixtoak infernuco labean* » (G. 572).

Etxean badire « *bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac eta gambarac* » (G. 75). « *Bihitegia* » erraten da oraino ; bainan bai « *greniera* » ere. « *Ardandegia* » ez da orai ezaguna ; bere tokian « *xaia* » entzuten da. « *Sotoa* » ere ez da erabiltzen orai Sara'n ; bainan ainitzek aipatzen dute bertsuetan :

*Erriko zahar batzuk
Sotora etorritz,
Han idukitzen naute
Lehertua irriz.
Konkorrak kanta,
Maingua dantza,
Oiuka elkorra
Biba zaharrak eta
Sotoko oporra.*

Etxearen garbiketa ere aipa digu Axular'ek. « *Isatsaz maiz iragaiten den etchea, erraz baita garbitcen, ceren harc sits-mits, eta liquitsqueria guti baitu : baina urthean behin baiçen garbitcen eztena, neque baita, eta gaitz, ceren harc herrautsa, eta amaraua lodi batu* » (G. 540). « *Sits-mits* », « *liquitskeri* » eta « *amarau* » ez dire orai ezagunak Sara'n.

Sukaldean suarria tresna bearrekoa zen lengo mendetan. Axular'ek dio « *harriac harriaren ioitea bietaric suaren pitztea* » dela (G. 292). Oraino erraten da : « *aski jotzeaiquin harriak ateratzeute inharra* ». Asarre direnezaz erten du : « *Harri mugueraren pare dira barrenean dute sua, asco dute uquitcea* » (G. 290). Orai 60 urte, suarria erabili oi zen sua pizteko, labana baten burdinarekin joaz. Ortik ateratzen zen inharrak jotzen kardua edo drunda (sutan erabilitako oihal-puska eta lotzen zion sua).

Urontzia aipa digu, « *beira bat ur* » erranez (G. 406).

Orraziazaz hala dio ; « *Gutitan orraztatcen denac, lehenbico orratzta aldian, orracea nequez iragaiten du, min hartcen du. Ceren illeac nahasiac eta igurtuac baitaude* » (G. 547).

Nekazaritzaz eran batzuek baditu Axular'ek bere liburuan.

Bere inguruan ikusten zituen lanak ; « *lur-lantcea, ap-paintcea, laboratcea* » (G. 22).

Orrialde batean dio « *neccaçaleric, eta laborariric baiçen ezten herria, dela herriric hoberena* ». Oraiko mintzaeran ez da entzuten Sara'n « *nekazale* ».

Lurra behar da irauli. « *Hasuina edireiten da alfer-naguia-
ren landan eta alhorrean* » (G. 41). Sara'n « *landa* » erten da, ez
« *alhorra* ». Hasuinak bezala aipa ditu elhorriak eta belhar gaix-
toak! baita « *mahastitic edo ardantcetic* » iragaitean ikusi dituen
« *hesiac, hersteguiac eta harmorac ere* » (G. 40).

« *Hobe da, eta beccatu gutiago da, igande egunetan, golde
nabarretan eta lur lanetan travaillatcea ecen ez dantçan ha-
ritcea* » (G. 415).

« *Golde nabarretan, edo golde-picoetan, lur lantcen, eta
appaintcen, guibelat beha dagoela hari denac, hildoa maccur
equinen du, ezta hura godelari on içanen* ». (G. 468). « *Golde
nabarren, eta arhen ere haritcea* » ezta ongi gibelerat begira
dabilenarentzat. Golde-nabarra ez da orai ezaguna Sara'n. Azke-
noak Mendive'n ikusi nituen orai dela zazpi urte.

« *Bihica ereiten çuten, eta escumenca viltcen* » (G. 232).
Bihika edo bikorka ereiten dire artoa, lursagarra eta illara. Ogia
berriz aburka zabaltzen da. Sara'n ez da erraten « *eskumenca* »,
« *eskuak beteka* » bai. « *Escumenac eta escutarac* » (G. 592), bi
itz Sara'n erabiltzen ez direnak; oien lekuan bai « *aburra* » edo
« *agurra* ».

« *Lapitzaren gainean ereiten den hacia* » (G. 156). Lapitza
edo arbela ausarki da Sara'n. Baita burdinaria, otarria, gultxur-
dinarria, eta ondar-artxabala ere, eta an-emenka arrauka-arri edo
kisuaria. Bi arri-motak elkar egiten duten tokietan arori
oi da tximista edo aide-gaixtoa.

« *Orgaren edo gurdiaren arroda beçala dira. Gurdi carga-
tuac badarasa, badirudi bere carga handia ecin iasanez, arrencu-
ratcen dela* ». (G. 429-430).

Orga eta gurdia ez dire berdinak; gurdiaren gurpillak
beren ardatzarekin dabiltz biraka; orgaren ardatza berriz ez da
igitzen. Gurdirik ez da orai Sara'n; ba-ziren ordea orai dela
70 urte. Oraino badire Azkain'en, Urruna'n eta Biriatu'n.

« *Lanabesac, tresnac* » (G. 26). Sara'n ez da « *Lanabesa* »
erraten, « *tresna* » bai.

« *Eztu escu-toquiric, eta ez lotceco quirthainic* » (G. 153).
Sara'n « *eskuleku* » erraten da, ez « *esku-toki* »; « *gider* », ez
« *girtain* ». « *Girttoin* » berriz gerezi, sagar, udare eta bertze
olakoren aleak izaten duten txurtenari deitzen zaio.

« *Maquitla borra bat, edo maillu handi bat, escuan duela* »
(G. 54). « *Makila-borra* » erten zaio oraino artzainen makila, buru-
konkordunari.

« *Haizcora, çuhaitzaren erroari, kheinatua dagocala* » (G. 571). « *Keinatu* » ez da ezaguna Sara'n.

« *Oihaneco çuhaitzac* » (G. 24). « *Oihan* » basoari deitzen zaio, zuaitzak dauden lurraldeari. Zuaitzik ez bada, erraten zaio « *ialeku* » (iratzez jantzia bada) edo « *otaleku* » (otea badire) edo « *sorropil* » (belar badago) edo « *larreki* » (belardi itxia). « *Barrendegi* » belarrez eta zuaitzez jantzia den lurralde esituari erten zaio. « *Baratz* » berriz etxe-inguruko lur esituari.

« *Eta çama bat eguinic, lothu çuenean* » (G. 85). « *Zama* » erten zaio belar, egur edo lasto-pilla bat lotua denean.

« *Çuhaitca ttipi deino birlandatcen da* ». (G. 87). Sara'n « *ttiki* » erraten da, ez « *ttipi* ».

« *Hec dira chertoac, hec dira landareac eta erroac* » (G. 367). « *Xerto* » bertze tokietan « *metu* » erraten da. Zuaitza edo landare basatia xertatzen edo metutzen da. « *Madari* » zuaitz basa edo sestraka mota bat da; « *udara* » berriz berari erten zaio xertatua delarik. Badire gerezi-baxa, basate edo sagar-baxa, fiku-baxa, zerri-arana, gaztaina-baxa eta berro-mahatsa. Mendian berez heldu den landareari zuaitza erraten zaio. Xertatuari berriz « *arbola* » deitzen zaio.

« *Hunçac inguratcen du çuhaitça, besarcatcen du, edosquitcen du eta azquenean ihartcen du* » (G. 360).

« *Hazleccua da, eta mindeguia. Ceren nola mindeguian birlandatceco landareac sorcen, eta hazten baitira* » (G. 409). Sara'n orai ez da « *hazlekua* » erraten.

« *Ebaquitcen duçunean çuhaitz bat, eta berriz hartaric urtumeac edo adarrac sorcen direnean* » (G. 465). Sara'n « *pikatu* » erraten da, ez « *ebaki* ».

* * *

Abereak eta ihiziak eta beren lan eta jokaerak ere aipatzen ditu maiz.

« *Idien orgac* » (G. 495). Orgak erabiltzen dituzte saratarrek, egurra, belarra, iratzea eta bertze gauza astun ainitz eramateko. Ortarako uztartzen dituzte beren idi edo beiak. Badire Sara'n orgaeileak.

« *Uztarria, biac iasaiten eta eramaiten baitute* » (G. 494). Uztargileak ere badire oraino Sara'n; baita bertze toki ainitzetan ere Eskualerrian. Marreztura ederrak eta iduri politak (idibyrüen iduriak) ezarri oi die zenbait erritan.

« *Are abre mutuec ere eztute, bere lehenéco usatua, édo*

etsigarri bat bedere igan gabe, lehen igan diren ostatuetaric, aintcinat, iragan nahi » (G. 92). « *Abre* » dire zaldiak, behorrak, pottokak, astoak. « *Kabaia* » berriz behiak, idiak eta zezenak, Sara inguruko mintzaeran.

« *Çamaria gazte deino hezten da* » (G. 87). Zamaria erraten da orai ere; baita behorra edo behorkia ere.

« *Han ixtitcen eta guibeletcen gara* » (G. 47). « *Ixtitceko eta guibeletceko* » (G. 126). « *Isti* » abere bat gibelka ibiltzea da. Atzeratu dedin erraten diogu; « *Isti!* », baita « *arre!* » ere.

« *Bitinac beçala* » (G. 97). Orai ahuntz gutxi da Sara'n.

« *Erran comuna den beçala, otsoak ian baiteçaque ardi contatuetaric* » (G. 242). Esaunda onek adierazten digu ez dela aski jakitea zenbat ardi ditugun otsoa aldentzeko. Artzainak ez du erran oi zenbat ardi dituen bere artaldean. Orai Sara'n ardi aintz geiago da guda-aintzinean baino. Gasnakin, ileakin, bildotsarekin ongi irabazten bai da. Bertze alde, orai ez da otsorik mendietan eta lehen baino errazago da ardiak azten: ez du artzainak beti ardien ondoren ibili beharrik.

« *Bi chacur gazte, bi or-cume ama batenak, eta sabel alde batetacoac* » (G. 87). Orai ez da or-ume erraten Sara'n, xakurkume bai. Sabelaldi batetakoak badire, deitzen zaie « *bi-bitxiak* » edo « *biitxiak* ».

« *Erleac nehor autsiquitcen duenean autsiquitcenago du bere burua, ceren bere estena eta bicia han utztèn baititru* » (G. 332). Sara'n erraten da « *asiki* », ez « *autsiki* ». Errana bada erlea eta sugea, bati asiki diotelarik, gero hiltzen direla.

« *Nola duten bere erregue* » (G. 35). Erleen buruzagi edo aitzindariari orai ere « *erregue* » deitzen zaio; bainan maizago « *ainyeria* ». Aidean dabilizan erleak erletegira edo zuaitz batera bilerazteko, deia egiten zaie erranaz: « *Maria, bil, bil, bil* ». Zugarramurdi'n berriz erraten diote: « *Or, Anyeria, bil bil, bil* ».

Ihizi guztiak dute ben jazkera: « *Animabiac larruz eta illez; hegastinac lumaz; arrainac ezcataz; eta çuhaitzac açalez* » (G. 24).

* * *

Mintzo da ere ihiztari, arrantzale, zurgin eta arotzai buruz.

« *Ihiztarien artetic iragaiten da* » (G. 342). « *Ihizia* » egaztina da Sara'ko mintzaeran. Bertze toki batzuetan berriz edozein alimali basa da ihizia.

« *Hura da, hurran hurran erran comuna den beçala, usoac*

ioan sareac heda » (G. 236). Sareakin egiten da orai ere usoen ihiza.

« *Ustex ecen ihicia sarean guen* » (G. 388).

« *Hec hedatcen, eta paratcen dituzten artez, sarex, lachioz, eta segadez* » (G. 341).

« *Arte* » lau oneko ihiziak atxemateko erabiltzen da. « *Sare* » eta « *segada* » berriz hegaztin basaentzat.

« *Indaitçue habailla batçuc* » (G. 89). Orai ez da ikusten habaillarik; bainan leengo mendeetan aipatua zen. Direla 60 urte, haurrek erabili oi zituzten jostailu bezala.

« *Untciac... berequin baitarama* » (G. 62). Untzia (ureko untzia) lagun ainitz edo gauza ainitz eramateko egina da. Barkua berriz arrantzan erabiltzen den aundiena; txalupa, txikietakoa.

« *Chaluparic edo batelic gabe* » (G. 132).

« *Amuac atcemaiten baititu arrainac, eta hegaztinac segadac* » (G. 60). Aga, haria eta amua dire arrantzako-kanaren zatiak. Amuan xixarea ematen da. Segada egaztinak atxematekoa da : ostilika baten eran saats-adar bat; burutik burura zotz bat; saatsetik (ostilikatik) dilindan zurda - ari batzuek, bakoitza bihizatua. Txori bat zotzera etortzen delarik, burua sartzen du bihizto batean eta bertan gelditzen da lotua.

« *Marinelac dembora eder denean, bela eguiten du, baitu tormentan geldi dago* » (G. 123). Sara'n ez da tormenta erraten, kalerna baino.

« *Arrantçaleac egotzten du amua beitarequis, cenbait iateco eta bazcarequin* » (G. 511).

« *Çare, sasqui eta otharre eguiten haritcen cela* » (G. 23). « *Zare* » eskuan edo besoan eramaten dena da : orretarako ba-du elduleku bat. Zareari Sara'n « *otarre* » deitzen diote. « *Saski* » da bizkarrean eramatekoa. Baztan aldean saski txikiari « *measaski* » erraten diote eta Sara'n « *saski-ttiki* ».

« *Errementaldeguian, harotzaren suteguian, hauscoac haice emaitetic guelditcen direnean* » (G. 325). « Sara'n ez da « *errementaldegi* » erraten, « *haroztegi* » bai. Ezta ere « *hauskoa* », « *haskoa* » baino.

« *Mailu colpeec ingudea gogortcen duten beçala* » (G. 97).

« *Su handia, iccatztobia, haice handiarequin, handitcena-go* » (G. 463).

« *Çur-guinac çura lantcen, eta appaintcen duenean* »
(G. 441).

* * *

Ara or zenbait argibide, Axular'ek bere inguruan zer ikusten zuen jakiteko. Luza gertzake irakasaldia, erlo orri jarraituaz. Bainan oraingoz aski dela deritzot.

Axular'ek bere liburua gauza bat erakusteko egin zuen : ona izatea eta ongi jokatzea geroko uzten duenak burugabekeri izugarria egiten duela, alegia. Bainan, bidez, bertze gauza aintz erakusten dizkigu.

* * *

Axularren berri batzuek bere liburua dakartzkigu ; bertze batzuek erritarren oroimenak.

Axular jakintsu andia zeukaten noski bere erritarrek oraino bizi zelarik. Geroztikoak berriz Axular'en jakiunda etzela gizonetikakoa uste izan dute : debruagandik ikasia zuela digute eta aren izena eta oroipena lenagoko esaunda eta aren izena oroipena lenagoko esaunda eta ipuiakin uztartu dituzte.

Ara zer ikasi nuen Ezpeleta'n orai dela 15 urthe ;

« *Zugarramurdi'ko lezean hiru apezek ikasi omentzuten, arima batean truk, debruaren eskola : Don Juan, Ondarrabio eta Atxular omentziren.*

« *Eskolak ikasi zituztelarik, lezetik ateratu nahi izan zuten ; banan arima bat debruaren eskuetan utzi behar zuten.* »

« *Iuzkia zelarik nahi omentzuten atera.*

« *Bainan (Zugarramurdi'n errana) debrua bethi hekien zain baitzen, hek ezin atera lezetik ; debrua galdezka omentzen beti :*

« *Atxular arrunt abila omentzen, eta bere xapela mintzaazten. Eta bein debrua solasean, bertze aldera begira zagola, utzi xapelaen gain debruari erreputak ematea eta denak atera omentzien lezetik.*

« *Debrua oartu omentzen ; bainan urduko urrun goanak. Debrua burdin-gantzo bat tiratu omentzioten gibeletik eta Atxular'i orpo-puska bat eta itza'a kendu.*

Ezpeletan ordea bertze alderea erraten dute. Axular eta bere lagunak egun batean asi omentzien ateratzen lezetik.

« Debruak galdatu omentzioten : « Orai nor gelditzen zizte hemen ? »

« Aintzinekoak erran omentzion : « Hartzak ene gibelegoa ».

« Bigarrenak aldiz : « Hartzak ene gibelegoa ».

« Hirugarrena Atxular omentzen. Harek ere : « Hartzak ene gibelegoa ».

« Atxularren gibeletik bere itzala baitzen, debrua Atxular'en itzalarekin gelditu omentzen.

* * *

« Behin gizon bat Zugarramurdi'ko leze inguruan behiketa omentzen.

« Jaun eder bat atera omentzitaion leze-bortan eta erran omentzion : Sara'ko erretorari paketa ttipi hau eremaiten balin baduk, nik erakutsiko hire behiak nun diren.

« Baietz, eremaintziola gogotik.

« Orduan lezeko gizonak erran omentzion behiak non ziren.

« Gero bertzeak hartu paketa eta Atxular'i ereman omentzion.

« Atxular'ek galdatu omentzion gizonari nork emantzion paketa hura.

« Zugarramurdi'ko leze-bortan jaun eder batek emantziola erran omentzion gizonak.

« Atxular'ek ideki omentzuen paketa eta gero erran omentzion gizonari, bixtan zen arbola hari estekatzeko barnean zauden sedazko gerriko gorriak eta, azken-itzuliak emaiten, laster eskapatzeko.

« Gizonak Atxular'en errana egin omentzuen, eta, bera eskapatzearekin, arbola errotik ateratu omentzen.

(Ezpeleta-Beleskabieta'ko etxeandereak errana).

* * *

Zugarramurdi'n erten dute Axular Sara'ko lezean debruak

eskolatua zela. Bera eta bere anaya (izenez Mikelats, léku batzuetan diotenez). Baina Atxular jainkozkoa zen, eta Mikelalts debuzkoa.

Behin Atxular Sara'n erretor zegola, yiten zaio gizon eder bat eta, enguruko ogi-landai begiratuaz, erraten dio : « landa aberatsak, ogia ausarki dario ; baditut nik zaldi ederrak oriek jotzeko ».

— « Bai nik ere zigorra, zaldi orien zuzentzeko » dio Atxular'ek.

Gizon hura (Mikelats) gan zen Atxular'ek erraten dio bere neskatoari : ikusten dazularik odei bat Larrun-ganean, gaztiga zaidazu.

Laster neskatoak ikusi zuen odei ttiki bat Larrun-ganean; erran zion Atxular'i. Atxular bereala gan zen Bulentegi'ko ganera eta han asi zen otoitz egiten kalerna urrunerazteko. Baina harría, bere herraots izigarriaikin, heldu zen Larrunen beitik. Orduan Atxular'ek bere oinetako bat aidera jaurti zuen, eta kalerna urundu zen. Etzen harririk erori Sara'ko landetan.

* * *

Atxular zahartu zen. Beldur zen hiltzea itzal gabe : ezin zitakean hala betiko zorionean sar. Bere itzala sagaran bakarrik agertzen zitzaion, meza ematen ari zenean. Sagaran hiltzea nahi zuen. Sakristauari erran zion : « hil nazak biar, sagarako ezkilak jotzean ».

— « Ez, nik ez haut hilen ».

— « Bai, hil behar nauk, bertzela ez nauk Jinkoaren gerizan izain ».

— « Bo, hilen haut ».

Biharamunean sakristaua eman zen Axular'en gibeletik, hilen zuela. Asi zen sagarako ezkila : baina sakristaua etzen ausartzen Atxular jotzea.

Gero Atxular'ek erran zion : « biar hil behar nauk ».

— « Bo, hilen haut ».

Bainan bigarren egunean ere berdinetzen ausartu, izitua omentzen.

Atxular'ek berriz : « biar hil behar nauk ».

Hirugarren egunean sakristauak hil omentzuen Atxular, eta sarrerazi zuen Zeruan.

* * *

Axular'en ipuiari ageri dire ainitz esaunda eta sinesgai. Ara hemen berezienak :

1. *Debrua maisu.*
2. *Lezean eskola.*
3. *Arima, lanen sari.*
4. *Debrua beti galdez, beti beira.*
5. *Xapela mintzatzen.*
6. *Ikasleak alde.*
7. *Itzala ebatsi.*
8. *Orpoa kendu.*
9. *Debruaren emaitza.*
10. *Debruak agertzen behiak.*
11. *Gerriko madarikatua.*
12. *Gerrikoa biltzen, zuaiza galtzen.*
13. *Bi anay : ona eta gaiztoa.*
14. *Onen eta gaiztoen burruka.*
15. *Onaren azken-garaimena.*
16. *Arima-itzal.*
17. *Arimaren bereganatzea.*
18. *Onaren geriztatzea, edo azken-zoriona.*

* * *

Sinesgai orietarik batzuek (1, 2, 3, 6 eta 7) aski edatuak dabiltz aspalditik. Ageri dire Cerquand'ek bildu zituen ipuietan.

Vinson'ek eta Sorrannain'ek ere argitarazi zituzten. Berek diotenez, Axular Salamanka'n, debruaren arpean, eskolatua zen. Axular baino leenago berriz Enrique de Villena egon omentzen arpe artan. Onezaz ere erten zan berdin : debruagandik zituela bere jakiundak eta gero iges egin zuela, bere itzala galduaz. Esaunda hek bazebiltzan beraz Eskualerri'tik urrun; Axularren garaiari eta leenagotik ere. Baita Eskualerrian ere aspalditik edatuak ziren. Amalagarren mendean aipatuak dire « *Livro dos Linhagens* » delazko liburuan (Don Pedro de Barcellos'enean) zenbait sinesgai, geroztik Axular'i edo bere oroipenari lzarririk dabilzenak (1).

Axular eskualdun aundienetakoa izan dela ez da erran beharrik. Bere irakasaldiak eta bere mintzaera zoragarriak ezagunak dire eta hekien itzala menderen-mendeetan atségin izanén zaie gure ondorengoai.

BARADIARAN'go Joxemiel.

(1) J. M. de Barandiaran, *Die praehistorischen Hohlen in der baskischen Mythologie* (Paideuma vol. 11, numéros 1 et 2; Leipzig, 1941)

